## OGASUN ETA FINANTZA SAILA ETA OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

**1448**

AGINDUA, maiatzaren 2koa, Ogasun eta Finantza Sailburuarena eta Osasun eta Kontsumo Sailburuarena, Osakidetzako Kontuhartzailetzaren egitura organikoari buruzkoa.

Osakidetzako Zerbitzu Nagusien, Osasun Alorren eta Unitate Periferikoen egitura eta iharduera ezartzen duen martxoaren 27ko 76/1990 Dekretuko 7-4-4. atalean, honako hau zehazten da, hau da, Ogasun eta Finantza Sailburuaren eta Osasun eta Kontsumo Sailburuaren baterako Agindu baten bidez, Osakidetzako Kontuhartzailetzaren egitura eta eraketa garatuko direla eta bai horren beheragoko administrazio unitateak ere.

Horiek horrela honako hau

XEDATU DA:

*1. atala.*— Honako organu hauek osatuko dute Osakidetzako Kontuhartzailetza, Kontuhartzailearen zuzendaritzapean:

- Kontuhartzailetza Zentrala
- Alorreko Kontuhartzailetzak
- Zentruko Kontuhartzailetzak.

*2. atala.*— Honako unitate administratibo hauek osatuko dute Kontuhartzailetza Zentrala:

- Kontuhartzailetza Zerbitzua
- Kontabilitate Zerbitzua
- Koordinazio eta Ikasketa Zerbitzua.

*3. atala.*— 1. Honako unitate administratibo hauek osatuko dituzte Lurralde Historiko bakoitzean bat egongo deneko Alorreko Kontuhartzailetzak, Alorreko Kontuhartzaile izena hartuko duen arduraduna izango dela horietako bakoitzaren buru:

- Kontuhartzailetza Unitatea
- Kontabilitate Unitatea.

2.— Atxikiko zaizkion Zentruko Kontuhartzailetzak egongo dira Alorreko Kontuhartzaile bakoitzaren pean.

*4. atala.*— Honako unitate administratibo hauek osatuko dituzte Zentruko Kontuhartzailetzak, Zentruko Kontuhartzailea izena hartuko duen arduraduna izango dela horien buru:

- Kontuhartzailetza Unitatea
- Kontabilitate Unitatea.

*5. atala.*— Osakidetzako Kontuhartzaileak izendatuko duen unitate-arduradunak egingo du Alorreko eta Zentruko Kontuhartzaileen ordezkotza, karguak hutsik gelditzea, kontuhartzaileak ez egotea edo gaisorik egotea gerta dadinean.

*6. atala.*— 1. Alorreko eta Zentruko Kontuhartzailetzei dagozkien unitateen garapena, horien kopurua, kokaketa eta adskribapena, une bakoitzean ematen diren beharrei egokituko zaie, zerbitzuen behar bezalako iharduera bermatu ahal izateko. Eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren eta Ogasun eta Finantza Saileko Kontuhartzailetza Zuzendaritzaren baterako Erabakiz egingo da garapen hori.

## DEPARTAMENTOS DE HACIENDA Y FINANZAS Y SANIDAD Y CONSUMO

**1448**

ORDEN de 2 de mayo de los Consejeros de Hacienda y Finanzas y Sanidad y Consumo sobre Estructura Orgánica de la Intervención en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

El artículo 7-4-4 del Decreto 76/1990, de 27 de Marzo, por el que se establece la estructura y funcionamiento de los Servicios Centrales, de las Areas Sanitarias y de las Unidades Periféricas del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, determina que por Orden conjunta de los Consejeros de Hacienda y Finanzas y Sanidad y Consumo se desarrollará la estructura y organización de la Intervención en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, y de sus unidades administrativas inferiores.

En su virtud,

SE DISPONE:

*Artículo 1.*— La Intervención en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza bajo la dirección del Interventor en el Organismo Autónomo, se estructura en los órganos siguientes:

- Intervención Central
- Intervenciones de Area
- Intervenciones de Centro.

*Artículo 2.*— La Intervención Central se estructura en las unidades administrativas siguientes:

- Servicio de Intervención
- Servicio de Contabilidad
- Servicio de Coordinación y Estudios.

*Artículo 3.*— 1.— Las Intervenciones de Area, una en cada Territorio Histórico, al frente de las cuales existirá un responsable llamado Interventor de Area, se estructuran en las unidades administrativas siguientes:

- Unidad de Intervención
- Unidad Contable.

2.— De cada Interventor de Area dependerán las Intervenciones de Centro que le sean adscritas.

*Artículo 4.*— Las Intervenciones de Centro al frente de las cuales existirá un responsable llamado Interventor de Centro, se estructuran en las unidades administrativas siguientes:

- Unidad de Intervención
- Unidad Contable.

*Artículo 5.*— Los Interventores de Area y de Centro serán sustituidos en caso de vacante, ausencia o enfermedad por el responsable de unidad que se designe por el Interventor en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

*Artículo 6.*— 1. El desarrollo de las unidades correspondientes a las Intervenciones de Area y de Centro, así como el número, localización y adscripción de estas últimas se adecuará a las necesidades existentes en cada momento, a fin de garantizar el correcto funcionamiento de los servicios y se realizará por Resolución conjunta de la Dirección General del Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/

2. Aurreko zenbakian ezartzen denaren kaltetan gabe, Zentruko Kontuhartzailetzen kokaketa eta adskribapenak finkatzen dira, Agindu honetako Eraskinean ematen direla.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Agindu hau indarrean jar dadin egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, Agindu honetan ezartzen den egituraren araberako kontuhartzailetza eta kontabilitate kontrolak behar bezala erabiltzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Kontuhartzailetza Zuzendaritzak eta bai kontrol horiek garatu behar dituzten lanpostuen zernolakoak zehazteko ere.

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Zerbitzuen iharduera egokia bermatu ahal izateko, beren ihardunetan jarraituko dute gaurregungo unitate administratiboek, Agindu honen bidez ezartzen den egitura poliki-poliki ezartzeko behar bezalako neurriak hartzen diren bitartean.

Gasteiz, 1990.eko maiatzak 2.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

Osasun eta Kontsumo Sailburua,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

Osakidetza y de la Dirección de Intervención del Departamento de Hacienda y Finanzas.

2. Sin perjuicio de lo establecido en el número anterior, se fijan las localizaciones y adscripciones de las Intervenciones de Centro que figuran en el Anexo de la presente Orden.

DISPOSICION ADICIONAL

En el plazo de un mes desde la entrada en vigor de la presente Orden, la Dirección de Intervención determinará las medidas necesarias para el adecuado ejercicio de los controles interventor y contable de acuerdo con la estructura establecida en la presente Orden, así como las características de los puestos que deben desarrollarlos.

DISPOSICION TRANSITORIA

A fin de garantizar en todo momento el correcto funcionamiento de los servicios, las unidades administrativas actuales continuarán desarrollando sus funciones, en tanto se adopten las medidas pertinentes para la gradual implantación de la estructura que la presente Orden establece.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de mayo de 1990.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JOSE MANUEL FRERIE CAMPO.

ERASKINA

| Zentruko Kontuhartzailetzen kokaketa | Adskribapena |
|---|---|
| 1.– Gurutzetako Ospitalea | Bizkaiko Alorreko Kontuhartzailetza |
| 2.– Honako hauek osatzen duten osasun multzoa:<br>– Arantzazuko Ama Ospitalea<br>– Gipuzkoa Ospitalea<br>– Amarako Ospitalea | Gipuzkoako Alorreko Kontuhartzailetza |

ANEXO

| Localización de las Intervenciones de Centro | Adscripción |
|---|---|
| 1.– Hospital de Cruces | Intervención de Area de Bizkaia |
| 2.– Complejo sanitario integrado por:<br>– Hospital Ntr. Sra. de Aránzazu<br>– Hospital de Guipúzcoa<br>– Hospital de Amara | Intervención de Area de Gipuzkoa |